

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIANG

Samartiñak

11 zbk.

2005eko azaroaren 6a



Aurtengo San Martin jaiak hastear direnean, zer hobetik garai bateko jaiak gogoratzea baino? Amasarrek hartu dute hitza. Gazte garaiari erreparoa egin diote eta gogo onez ekarri dute hamaika pasadizo. Hainbat ohitura mantendu da, beste hainbat aldatu eta, galdu denik

ere bada. Eta berritu... asko! Egungo jaiak ezin pareka daitezke garai hartakoekin, noski. Gaur, orduan baino ekintza gehiago izaten da. Askoz ere gehiago. Hala ere, orduko gazteek gaur bezainbesteko gogoaz bazuten, gutxienez, jaiak iristeko. Goazen hirurogeita hamarren bat urte atzera...

HOTZA EDO HEGO-HAIZEA, JAIK AURRERA

Amasako elizaren patroia San Martin de Tours denez, herriko jaiak ere santu beraren inguruan izaten dira. "Negua zelako, eguna aldatuko ote zuten-edo ibili omen ziren baina, bere horretan uztea erabaki zuten azkenean". Amasako jaietako ezaugarria euria eta hotza izan ohi da askotan, "elurrarekin ere ibili izan gara noizbait" eta hego-haizea gailendu den urteak ere izan dira; denetik beraz. "Hotza egin arren, garai horretan beste inon festarik izaten ez zenez, txoko askotatik jende mordo eta etortzen zen Amasara".

Herriko gazteek antolatzen zituzten jaiak,

Amasako mutil gazteek, "neroni ere ibili izan nintzen antolakuntzan" dio Robertok. "Behin oilasko-jokoan ateratzeko edadea iristen zenean, haiek aritzen ziren oilasko-biltzearen eguna antolatzen". Plazan bildu eta lagunartean egiten zuten lan hori. Ez zen jaietako egitaraurik izaten, "mutil gazteek prestatzen zuten festa eta kito". Herriak ere parte hartzen zuen jaietan, "musika banda Udalak bidaltzen zuen San Martin eta hurrengo igandean". Jaietan antolatzen egitako lanagatik, Arantzabiko Joxe aipatu dute besteren artean, "urte askoan atera zuen dantza-soka, oilasko-jokoaren egunean".

Garai bateko Samartiñetan ekintzarik garrantzitsuenak oilasko-jokoa zen, dudarik gabe. Jaiaren antolaketan nahiz parte hartzean mutilak ziren nagusi. Neskek ba ote zuten festetan tarterik? "Dantza-sokara joateko ilusioa izaten genuen. Batzuetan ez ziren neskek osatzen eta etxe bakoitzeko mutilek, arrebarik bazuten, arreba bat eramaten zuten plazara. Ez berarekin ateratzeko, baina bai dantza-sokarako neskek izateko. Dantza-sokaz gain, musika bandarekin dantzatzeko irrikaz egoten ginen. Antzinaran, dantza lotua galerazita zegoenean, suetoan aritzen ginen. Geroago, *agarra-*

JAIK, EGUNEZ EGUN

San Martin eguna azaroaren 11n bada, garai batean, San Martin bezperan hasten ziren jaiak. "Azaroaren 10ean kanpaiak jotzen ziren, jaiak bazetozela iragartzeko. San Martin egunean meza nagusia eta dantzaldia izaten ziren, San Martin bigarrenegun ezer ere ez eta hirugarrenean, oilasko-jokoa. Igandean errepikapena izaten zen eta musika banda etortzen zen Villabonatik. Ordu eta erdi-edo jotzen zuen, txistulariekin tarrekatzuz. Behin iluntzerako, denok etxera". Festen antolaketarako, laguntza moduan,

esos batzuk ere jasotzen zituzten. "Villabonako Udalak hogeita hamar eta hiru edo lau dozena etxefero ematen zituen jaietarako. Oilasko-biltzearen egunean, txapela pasatzen zen diru pixka bat lortzeko. Bestela, norberak bere poltsikotik jarri behar". Jasotako dirua, oilasko-jokoaren egunean bazkaria edo azeria ordaintzeko erabiltzen zuten. Oilasko-jokoaz zabalago, aurrerago hitz egingo badugu ere, jakin ezazue oilasko oparitzen zieten etxeetan edo baserrietan bonba etxeferoa botatzen zutela, "etxefero

normalek baino soinua handiagoa egiten zuten", dirua ematen zieten lekuetan berriz, etxefero normala. "Bonba etxeferoa entzuten genuenean, 'hara! Oilasko eman die-te' esaten genuen" azaldu du Encarnak. Parte hartzaileek nahiago zuten dirua baino oilasko jaso. Maritxu Gonzalezek beste aipamen bat ekarri du, "gure garairako, etxe guztietan oilasko ematea eskatzen zuten; bestela igual ez baitzitzaien ailegatuko". Gatozen egunez egun, Samartiñetako ekitaldiez hitz egitera:

SAN MARTIN BEZPERA, JAIEN IRAGARLEA

Jaiak bazetozela iragartzeko, Amasako mutil gazteek, etxeferoak botatzen zituzten elizaren ataritik eta kanpaiak ere jotzen ziren San Martin bezperan. "Gero, txistuarekin

buelta igual ematen nuen plaza inguruan" dio Robertok. "Bost minutuko kontua izaten zen. Berehala amaitzen zen". Martinek ere oroitzen du nola kanpaiak jo eta gero,

Arantzabiko bidegurutzera joaten ziren txistua joz, "Amasako errebueltaraino joaten ginen txistuarekin. Han hiru pieza jo eta iluntzerako akabo".

SAN MARTIN EGUNA, AMASARREN JAIEGUNA

Ixio Iribarren, Juanito Gurrutxaga eta Martin Laskurain Udaleko txistulariak, baserri baserri igarotzen ziren San Martin goizean kalejiran. Martinek azaldu duenez, "goizeko seiretan abiatzen ginen, baina aurrena, gosaltzeko elkartzen ginen hirukotea etxe-ko tabernan, Andrategin". Roberto ez zen kalejira horretan ateratzen, "nire erara ibiltzen nintzen, batean eta bestean". Ixio, Juanito eta Martin, Amasako baserri ia guztietatik igarotzen ziren. "Aurrena Lizarra baserriira joaten ginen. Bordara, Otsandolara, Pasusera, Goikoetxera edo Mikel Igartzara... gero. Ardoa ateratzen ziguten. Zortziko txiki bat jo eta hurrengo baserri!". Meza nagusirako amaitzen zuten kalejira, "hor nonbait ibiltzen ginen, bai".

Goizeko hamarretan izaten zen meza nagusia. "Jende asko biltzen zen elizan. Noski, familiak handiagoak ziren, etxe bakoit-

zean jende gehiago bizi ginen". Meza Villabonako erretoreak ematen zuen. Solaskideek argitu dutenez, "garai batean Amasan bazen erretorea. Gero, Villabonara joan zenean, handik etortzen zen meza nagusia ematera. Herriko semeren bat apaiza baldin bazen, hura ere laguntzera etortzen zen". San Martin eguneko meza ez zen beste egunetakoa bezalakoa izaten, "indartu egiten zen". Sermioian apaizak izaten zuen mezurik herriarrentzat, "garaiz erretiratzeko esaten zigun". Meza eta gero, Seroetxen hamaiketako txiki bat egiten zuten mezetara joan zirenetako askok, "arrantxoa". Festa nagusia, arratsaldeko lauretan hasten zen; iluntzera arte, dantzarako tartea izaten zen. "Seroetxeren lehen solairuan bazen udaletxekoaren moduko areto bat eta hango balkoitik, txistua eta filarmonika jotzen zituzten goizeko alboradan parte hartu zuten txistulariek eta filar-



Martin Laskurain

"Goizeko seiretan abiatzen ginen, baina aurrena, gosaltzeko elkartzen ginen hirukotea etxe-ko tabernan, Andrategin"

monika-joleek: Luziano Garatek batzuetan eta Luis Zalakainek askotan. "Gu behean dantzan, jakina" azaldu du Maritxu Mendizabalek, "San Martinetan ez hainbeste baina, Santiotan alpargatak urratua gogoratzen naiz". Maritxu Gonzalez ere asko gustatzen zitzaion dantza egitea, "ni behintzat ez nintzen dantzan geratzen!".

SAN MARTIN HIRUGARBENA, OILASKO-JOKO EGUNA

Goizeko seiretan ematen zitzaion hasiera oilasko-biltzaileen jardunari. "Etxefero batzuk botatzen genituen lehenengo. Orain bezalaxe, bi taldetan banatzen ginen; mutil koadrila bat Legarreta auzotik abiatzen zen eta bestea Larreatik. "Lehen taldea Legarretatik Fraisoro aldera joaten zen, handik Agaraitz auzora eta Artatoloxatik barrena, Otelarre bailarara. Bigarren taldea, berriz, Larreatik Arantzabi aldera abiatzen zen eta inguruko baserriak igarota, Amasako goiko auzora joaten zen, Xandrara bitarte". Maoizko galtzak, alkandorra txuria, blusa eta abarkak jantzita abiatzen ziren, lepoan koloretako painueloa eta buruan txapela. Goizeko bederatiak aldera Villabonako *Ongi etorri* tabernan biltzen ziren gosaltzera, "baratzuri zopa izaten zen lehenengo eta tortilla gero". Gosari bikainaren ondoren, indarrean jarraitzen zuten oilaskoak biltzen, bazkaltzeko garaia iritsi arte. Baserrietan jatekoa eta edatekoa ateratzen zenez poz-pozik ibiltzen ziren batetik bestera, "ateratzen zutenean, edan guk. Jaten baino gehiago ibiltzen ginen zurrutean. Batzuk moxkortu ere egiten ziren". Eguerdian, jasotako oilaskorik bikainena alkateari oparitzen zioten, bizirik. Eta bazkaltzera etxera joaten ziren gehienetan, "kanpoan bazkaltzeko modurik ez zen eta. Zer uste duzu orain

bezala izaten zela dirua?" mahai-gaineratu du Robertok. "Jasotako oilaskoak zintzilikatzeke, makilekin osatutako gurutzea eramaten genuen. Hogeita hamarren bat oilasko bilduko genituen guztira. Lehen mutilak bakarrik ateratzen ziren. Orain neskak eta mutilak. Hamar lagun inguru ibiltzen ginen oilaskoak biltzen". Robertoren hitzetan nahikoa lan izaten zen tal-

de hura osatzen. Beste taldekideek, egun horretan, mutil gehiago biltzen zela diote.

Arratsaldean, kafea eta kopa hartzeko biltzen ziren Arantzabin, lepa-moztearen aurretik. Jatetxetik plazara giro bikainean abiatzen ziren parte hartzaileak, txistuarekin *Idiyarena* pieza joz eta dantzatuz. Lepa-moztearen txanda zeto-



Lepa-moztea eta parte hartzailearen jauzia. Herritarrek adi.



Lanak bukatuta, buelta saltoka.

DANTZA-SOKA, NESKEN URDURITASUNA

Dantza-sokaren garaia iristen zenean, neskek urduri antzera egoten ziren begira. Izan ere, mutilek dantzara ateratzen baitzituzten. "Inportanteenak lehenengo bi neskek izaten ziren, aureskua egiten zietelako". Solaskide guztiei egin zieten noizbait aureskua. "niri bai...", "niri ere bai...", "baita niri ere..." gogoratu dute emakume guztiak irribarrez. Batzuk gordeka ibiltzen ziren dantzara ez ateratzeko, "niri ez zait ondo iruditzen hori. Ekintzaren bat antolatuz gero, denek hartu behar dute parte; lotsa pixka bat eman arren". Izugarrizko lotsa pasatzen omen zuten mutilek dantzara ateratzen zituztenean, "denak zuri begira dituzula iruditzen zaizu, hala izan ez arren" aipatu du Pepitak. "Orduan, dantza-sokara ateratzen zintuen mutilak,



Encarna Yarza

"Ekintzaren bat antolatuz gero, denek hartu behar dute parte; lotsa pixka bat eman arren"

ondoren, nahi zenuenean, etxera laguntzen eta gero, afaltzera joan ere bai. Niri egin izan didate hori. Marrubitzera erre zen urtean Goikoetxeko Migel Mari nuen. Gogoratzen naiz, bai" dio Maritxu Gonzalezek. Guztiak bat datoz sortzen zen giroa izugarri ona zela esaterakoan, "denak eza-gunak ginen, oso giro alaia izaten zen. Suel-

ren segidan. "Parte hartzaileen artean, nahi zuenak mozten zion lepoa oilaskoari. Lepa-moztaileak aurpegia zapi batekin estalita eta ezpata eskuan hartuta gerturatzen ziren zortzikoa dantzatzen, banaka-banaka oilaskoarengana. Pozik handiena, *zast!*, lepoa lehen golpean moztea izaten zen". Jende asko biltzen zen plazan lepa-moztearen garairako eta baita ondorengo dantza-soka ikusteko ere. "Gaur bezala, bi mutilek desafioa egiten zuten. Aureskua eta atzeskua dantzatu eta gero, neskek tartekatzen ziren mutilen artean. Mutilek painuelo txuria izaten zuten poltsikuan, ondo plantxatuta, neskek ateratzen zirenerako. Sueltoan egiten zen gero eta bukatzeko, korroan".

toan eta korroan ere gustura aritzen ginen dantzan". Tartean dantzari onik izaten zela azaldu dute, "Arrietako Ebaristo eta Rufino anaiek oso ondo egiten zuten dantza, baita Bordako Joxe Marik ere. Nesken artean, Larrañako Ixabel oso ona zen dantzan, Arantzabiko Agustina ere bai".

Dantza-soka bukatzen zenean, elizako zimiterioan ardoa eta gailetak banatzen zitzaizkien dantzan aritu ziren guztiei, "hantxe jartzen ginen eserita. Urte batzuk izango dira ohitura hura galdu zela... Festa amaitutakoan, Arantzabira afaltzera. Neskek ez, gu etxera joaten ginen". Afarian gonbidaturen bat ere izaten zen, tartean herriko aguazila. "Pio aguazilari afaria ematen zitzaion, baita geroago Luzianori ere. Piok afaltzera garaiz joan nahi izaten zuenez, soina segituan bukatu arazten zuen. Dantzan ari ginenak pena... Hantxe geratzen ginen ixilik" azaldu du Maritxu Gonzalezek. Afariko menua oilaskoa zen, jakina; "barrunbeekin egindako tortilla lehenik eta oilasko erre bana gero. Oilaskoa bukatzen ez zuenak etxera eramaten zuen, paperean ondo bilduta". Baserriz baserriko bilketan jaso zuten diruarekin edo bakoitzak poltsikutik jarritakoarekin ordaintzen zuten afaria, "oilasko haiek lumatzea eta prestatzea ordaindu egiten genuen. Lan handia zen hainbeste oilasko prestatzea. Afariko edariak, kafea eta kopak ere guk ordaintzen genituen. Afaria bukatu eta laster abiatzen ginen etxera". Sobran geratzen ziren oilaskoak Arantzabi jatetxekoei saltzen zizkieten, "askotan oilasko asko biltzen zen eta, dirua ere behar zen".



Amasar gaztea aureskua jasotzen; laguntzaileak alboan eta Roberto txistuarekin, 1964 urtean.

LEPA-MOZTEA, DEBEKATU?

Duela bi urte, oilaskoen lepa-moztea debekatu egin zuten Amasan. Hautsak harrotu zituen inguruan gertaera hark. Gaiaren inguruan, ondokoa da hizlarien iritzia: "Orduan ez zegoen inor oilasko-jokoaren aurka. Gaizki iruditzen zaigu ohitura hori debekatu nahi izatea. Dozena bat oilasko izan-go dira akabatzen direnak eta! Zezenketei begira zer esan daiteke? Haiek bai sufritzen dutela! Toreatzen hasi, pikatu eta aka-

batu arte, a ze sufrimendua! Hori ametitzen dute... Oilasko-jokoaren festa polita iruditzen zaigu, ez baita lepoa moztea bakarrik. Egun guztia hartu behar da kontuan. Mantendu beharreko tradizioa dela uste dugu". Tradizio hark aldaketak izan ditu, besteak beste, neskek ere oilasko-jokoan parte hartzen dute azken urte luzeetan. Zer iruditzen zaie hori hizlarietara? "Ondo iruditzen zaigu nesken parte hartzea. Lepoa moztu



Pepita Lasa

"Zezenketei begira zer esan daiteke? Haiek bai sufritzen dutela! Toreatzen hasi, pikatu eta akabatu arte, a ze sufrimendua!"

apenas egiten duten, baina gainerakoan, mutilak bezalaxe, baserri baserri ibiltzen dira oilaskoak biltzen eta dantzan".

SAN MARTIN ETA HURRENGO IGANDEA

Azaldu dugunez, jaien errepikapena izaten zen San Martin eta hurrengo igandean. Meza nagusiaren ordua lehenik, "jaierokoa... 08:00etan bat eta 10:00etan bestea. Egun horretan ez zen meza berezirik izaten". Festa arratsaldean izaten zen, "Villabonatik banda etortzen zen eta txistulariak ere tartean izaten ziren". Gustura eta pozik ateratzen ziren dantzara, "bandarekin *agarratu*an egiten genuen dantza", nahiz eta aipamen hori zehaztu egin behar den: Encarnaren garaian neskek neskekin egiten zuten dantza, geroago hasi ziren neskek eta mutilak elkarrekin. "Mutilak 'faborez?' galdezka etortzen ziren". Eguraldi txarra ez zen aitzakia izaten, "euria egiten bazuen ere dantza egiten genuen, guardasola parejak heldu eta segil". Urtean behin izaten zen dantzaldia eta ezin dantza egiteko aukerarik galdu, noski.

"Gerorrek ikasten genuen dantzan, etxeko sukaldean. Belarri ona zuena moldatzen zen, baina dantzan jakin, inork ere ez". Bandako musikari zen Jabier Berasaluzek emandien nondik norakoak zehaztu ditu, "musikariak zirkulu bat eginez jartzen ginen, zuzendaria parean genuela. Haren



Jabier Berasaluze

"Seroetxeko aretoan ogia, gazta eta ardoa ematen zizkiguten. Tradizio handiko ohitura zen. Banda desagertu arte iraun zuen usadio hark"

batutaren mugimendua ondo ikusteko, leku egokia topatzen saiatzen ginen. Partiturak, plazan jolasean zebiltzan haurren batzuk eusten zizkiguten". Emanaldia bukatu eta gero, Seroetxan elkartzen ziren musikariak. "Seroetxeko aretoan ogia, gazta eta ardoa ematen zizkiguten. Tradizio handiko ohitura zen. Banda desagertu arte iraun zuen usadio hark". Herriko mutilak txapelarekin dirua biltzen aritzen ziren, dantzaldia amaitu eta gero, "txapela pasatzen zuten plazan, sortzen ziren gastuak ordaintzeko". Eta azkenik, neska-laguntzearen garaia iristen zen. Amasarrez eta villabonatarrez gain, "Andoaingo edo Ibarako mutilek ere parte hartzen zuten, besteak beste, neska-laguntzean". Amasarrek behintzat ez zieten kanpoko mutilei harrika egiten neskei etxera laguntzen zieten.

MARRUBITZA ETXEA, KIXKALITA



Maritxu Gonzalez

"Sagardo botila hutsak zeuden lasto artean eta, lastoak su hartu zuenean, botilen krik eta krak hotsek esnatu zuten ahizpa"

1947 urteko oilasko-jokoaren ondorena ondo gogoan dute parte hartzaile guztiak: Marrubitzaren etxeari su eman zioten oilasko-jokoa eta gero, mutilak afaltzen ari ziren

gauean, "inbidiaren bat-edo izango zuen batek su eman zion Marrubitzaren etxeko mandioari. Sagardo botila hutsak zeuden lasto artean eta, lastoak su hartu zuenean, botilen krik eta krak hotsek esnatu zuten ahizpa", azaldu du Maritxu Gonzalezek, Pilarri aipamena eginez. "Bi bizitza zituen etxeak. Goiko solairuan berasategitarrak bizi ziren eta behekoan, Inaxio Odriozola osaba; Pilar Gonzalez eta Eugenio Galarraga ilobekin". "Azkar hartu zuen su etxe guztiak. Suteaz konturatutakoan, Arantzabirara igo ziren laguntza eske. Afariko mutil koadrila sua itzaltzen saiatu bazen ere, alferrik. Berasategitarren amona balkoitik ate-

ra zuten mutilek eta ganadua ikuilutik. Eguraldi ederra egiten zuen, gau-giro ederra". Horrelako gertaera baten aurrean, etxe etxe diru bilketa egiten zen galerak izan zituztenei laguntzeko. "Inaxio Gonzalez eta Joxe Galarraga lehengusuek egin zuten *etxe-erreskia*. Inaxio anaia soldadu zegoen, permisoa eskatuta etorri zen laguntzera". Berasategitarrak kalera etorri ziren bizitzera eta Inaxio Odriozola eta bi ilobak Amasetxera joan ziren "Amasetxeok, etxearen goiko solairuan zituzten bi logelak utzi zituztenez. Igerategikoek ganadua gordetzeko etxe-ordea. Terrenoa Marrubitzan zutenenez, dena gertutik gertura".

TABERNAK, BAT BAINO GEHIAGO

Taberna bat baino gehiago zegoen garai batean Amasan. "Andrategi etxean, urte guztian zehar zabalik izaten zen taberna. *Xerapianea* moduan ezagutzen genuen, Xerapia arduratzen baitzen hango lanaz. Martin Laskurainen izeba zen. San Martin jaietan *pues-toa* jartzen zuten tabernako leihotik atarira. Edaria eta goxoak saltzen zituzten. Gu patxintxiak erostera joaten ginen" gogoratu du Maritxu Gonzalezek. "Ni txikia nintzenez, gogoratzen naiz nola bi zentimorekin erosi nuen karamelua. Orduan Martinen amona aritzen zen lanean, goxoak saltzen zituen. Gerora, izeba hasi zen tabernarekin, Seroetxe gutxitu zenean". Izan ere, Andrategi tabernaz gain, Seroetxe zaharrea ere bazen taberna, "jende asko joaten zen arrantxoak egitera". Seroetxe Joxe Ramon sakristaia eta Mari Kruz serora, anai-arrebak arduratzen ziren tabernako lanaz. Gerora, Inazio Etxeberria eta Inaxi Sorrondegi ezkondu ziren bertara eta haiek aritu ziren taber-

nako lanetan. "Eskola egiteko etxea botatzenean, elizaren atzealdean eraiki zuten Seroetxe berria". Arantzabi taberna ez, baina jate-
xe ezaguna izan da eta halaxe da oraindik ere, "beste biak baino geroago sortu zen Arantzabi". Eta urteak aurrera, Uxo-Toki elkarte izan aurretik, taberna izan zen lehenago, "taberna, Baxilio Sarasolarena zen. Geroago, Roberto Garatek eta bere sendiak egin zuten lan. Edaria banatzen zen, jatekorik ez. Uxo-Toki elkarte bihurtu aurretik, Migel Odriozola 'Berrobi'k izan zuen tabernaren ardura". Besteak beste, baxoerdiak hartzeko tokiak aukeran, amasarrek ere. Eta festetan baita gutizia gehiagorentzat tartea ere. "Barkilleroa eta karameleroa etortzen ziren jaietan Amasara. Tolosatik, erroskillak saltzera, bi emakume ere bai", haurren eta helduen gozagarri. Robertok azaldu duenez, "erroskilla handiak saltzen zituzten. Piper erroskillak deitzen zitzairen. Mahai handi baten gainean jartzen zituzten plazan

salgai. Mahai hura gure etxetik hartzen zuten eta trukean, sei erroskilla oparitzen zizkiguten. Gainerakoan, kartaketan, bateko urrea jolastuz banatzen ziren erroskillak. Karta bakoitzak 10 zentimo balio zuen eta bateko urrea egokitzen zitzaionari, saria. Beti beteta egoten zen postua. Joko bat bestearen atzetik. Samatiñek irauten zuten lau egunetan bertan izaten ziren erroskilleroak".



Roberto Garate

"Mahai handi baten gainean jartzen zituzten piper erroskillak salgai. Mahai hura gure etxetik hartzen zuten eta trukean, sei erroskilla oparitzen zizkiguten"

MAHAIAREN INGURUKO KONTUAK

San Martin inguruan txerria hiltzeko ohi-turarik ba ote zuten amasarrek? "San Martinak eta gero hiltzen da gehienetan txerria. Baina gure amak Samatiñetan txerria prestatzeko ohi-tura zuen" argitu du Maritxu Gonzalezek, "txerri koxkor bat". Beste hizlariak, txerria baino, ardia hiltzeko ohi-tura ekarri dute gogora. "Mondejuak eta odolkiak egiten ziren ardiarekin". Odolkiak ardiarekin? Ba bai: "Mondeju beltzak. Ardiaren odolarekin egin-

dakoak. Ardi-odolkiak". Jakinaenez, mondejuak ardiaren barrunbeekin egiten ziren eta dira oraindik ere. Orain, jaien lehen egunean egiten da mondeju-afaria. Garai hartan, San Martin egunez jaten zituzten mondejuak amasarrek. "Amasan mondejuak jateko tradizioa aspaldikoa da. Orain Uxo-Toki elkarteetan jaten dira baina orduan, San Martin egunean Arantzabin jaten ziren". Jakin nahi al duzue beste pasarte bixi bat? Samatiñetara jende

ugari etortzen zen inguruko herrietatik. "Baina ba al dakizue nondik etortzen zen jende asko?". "Frantziatik", azaldu du Encarnak. "Frantziak jai jartzen zuen San Martin de Tours eguna eta handik hona etortzen ziren. 1945 urte inguruan, gogoratzen naiz nola frantsesak beren ogiarekin Arantzabira bazkaltzera etortzen ziren. Neronek ikusi nuen hori". Eta mahaiaren inguruko kontuez hizketan ari garenez, jarrai dezagun hariari tiraka. Familiako baz-



1945 urteko oilasko-jokoan parte hartu zuen taldea.



Begiradak 60ko hamarkadan. Etxeferoak eskuan.

kariak San Martin egunean baino gehiago, San Martin hurrengo igandean izaten ziren. Hala ere, familia handia zen kasuetan, egun gehiagorako etortzen ziren gonbidatuak. "Gure familia handia zenez, senitartekoak kanpotik etortzen zirenean, San Martin egunerako etorri eta igandera arte geratzen ziren etxean" azaldu du Pasusko Pakitak. Garbantzua izaten zen jaki nagusia. Oiloren bat ere akabatzen zen eta oilo salda nahiz oilo gisatua izaten zen bazkariako. Oilaskoren bat ere bai. "Postrera-

ko arroz esnea. Orduan *arroz con leche*-a esaten genion".



Maritxu Mendizabal

"Mondejuak eta odolkiak egiten ziren ardiarekin. Mondeju beltzak. Ardiaren odolarekin egindakoak. Ardi-odolkiak"



1946 urteko festak eta gero, amasarrek Aldeiturri baserrian egindako bazkariaren ondoren.

SAMARTIÑETAN, ARROPA BERRIA

Harritzekoa izan arren, herri kirolak eta apustuak San Isidroan besterik ez ziren izaten antzinan. Orduko Samartiñetan ez herri kirolik, ez asto karrerarik eta ez, oro har, bestelako ekimenik. Geroago etorri ziren ekitaldi horiek. Hala ere, bizikleta lasterketak ezagutu zituzten, "Arantzalderen buelta horretan, bizikletarekin karreran ibiltzen ziren ama-

sarrak". Santiotarako, ahal bazen, soineko berria egiten zutela esan ziguten villabonatarrek. Amasar neskek abrigo berria izaten zuten, "hotza etortzen zen eta". Santu guztien eguna eta San Martin egunaren artean izaten zuten abrigo berri hori. Gehienetan lanazkoak izaten ziren. "Akordatzen naiz nola neska kozkorra nintzela, kapa egin zidaten.

Elegantea. Lotua zen. Bi patrikazituen, haie-tatik eskua sartu eta gustura!". Karmen Lizarraga adunarrak josten zizkien orduan arropak. Mutilek, Samartiñetarako baino, prozesiorako izaten zuten arropa berria, "galtza urdinak, maoizkoak. Bizkaitarrak ere polit askoak izaten zituzten". Galtza bizkaitarrak, mendigoizale galtzak edo *mil rayas*-ak.



Lumanetarren garaian, txirrindulari frogak izaten ziren Amasan. Geroago, herri kirolek eta korrika apustuek zaletu asko gerturatzen zuten.



Asto karrera ere, tradizio handiko ohitura da.



Herritarrak soka-tiran gogotsu.

GAZTEA, BETI FESTAZALEA

Samartiñak, Santioak... zein jai zituzten gogoko galdetutakoan, azkar eman dute erantzuna, "denak. Bai Samartiñak eta baita Santioak ere". Batek edo bestek Santioak gogokoago zituen, "luzeagoak zirelako". Irurako jaiak edo Urnietakoak ere aipatu

dituzte. Festazaleak ziren, gazte gehienak bezalaxe. "Oraingo gaztea festa gehigotara joaten da, baina orduan ere gustura ibiltzen ginen". Ohiturak aldatu direla, ordea, kontu nabarmena da, "guk egiten genuen hainbat gauza oraingo gazteek ez dute ulert-

zen. Alderantziz, guk ere ez haiena". Ordu-tegiaren gaia guztiz aldatu da, "gu etxeratz ginen orduan hasten da festa egun". Neska-mutilak elkarrekin festan ibiltzea ondo iruditzen zaie, "neskek eta mutilek elkar har-tu dute. Beste alaitasun bat ikusten da".

Sei amasarren eta musika bandarekin, tronboia edo bonbardinoa joz, Samartiñetan parte hartzen zuen villanatarren ahotik osatu dugu aldizkaria. Kontu bitxi ugari, guztion eskura. Iragana eta oraina, urrun bezain gertu... Ondo pasa Samartiñetan!



Martin
Laskurain



Pepita
Lasa



Encarna
Jarza



Jabier
Berasaluze



Maritxu
Gonzalez



Maritxu
Mendizabal



Roberto
Garate

...ETA HURRENGOAN ZER:

Azkar pasatzen da denbora, gero! Konturatzerako iritsiko dira Gabonak. Eta gai horretan ere, zer esanik ez... Askok aldatu dira kontuak. 12. zenbakian, garai bateko Eguberrietako usadioak ekarriko ditugu. Kontsumoak bere gain hartu duen negu-garai hori, oporraldi bihurtu da egun, asko eta askorentzat. Nolakoak ote ziren lehen? Nola bizi ote zituzten? Gaiak jakinmina sortzen badizu, badakizu... Irakur ezazu hurrengo zenbakia! Ordu-ra arte... Segi ondo, irakurle!



ESANAK ZEHAZTUZ:

Aurreko zenbakian, Amasako Ostegun Santu egunean, mutilek kandelak zaintzen guardia egiten zutelaren genion. Jainkoa zaintzen igarotzen zuten gaua, kandelak piztuta zeudela. Bestalde, Amasako lehen sakristaia Seroetxeko Joxe Ramon izan zen eta serora, Mari Kruz arreba. Ondoren, Organistaneko Jaxinto Etxeberriak eta Juanita Garinek egin zuten lan hori. Lutxi Elola aldareak jartzen aritzen zen.

EGUTEGIA

Azaroaren 18tik aurrera salgai, ohiko lekuetan 5 euroren truke.



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza
KULTURA SAHIA